

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2312

50/2017 EBAZPENA, apirilaren 12koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, sinatu beharreko hitzarmen-eredua argitaratzea xedatzen duena.

Gobernu Kontseiluak, 2017ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin sinatu beharreko lankidetzeta-hitzarmenaren eredua onartu zuen. Hitzarmenaren helburua da informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri ematea, eta haren zabalkundea egitearren, hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin sinatu beharreko lankidetzeta-hitzarmenaren testu-eredua, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko. Testu hori eranskinean dago.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 12a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL.

2017ko maiatzaren 10a, asteazkena

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN APIRILAREN 12KO 50/2017 EBAZPENARENALANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALEKIN SINATU
BEHARREKOA, INFORMAZIOAREN, ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA
ELEKTRONIKOAREN ESPARRUAN ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO

_____ (e)n, 2017ko _____ aren __ (e)(a)n

BILDUTA:

Alde batetik, Josu Iñaki Erkoreka Gervasio, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari gisa, esleituta dauzkan eskumen hauek baliatuta: lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren bidez agindutakoak (dekretu horren arabera sortu, ezabatu eta aldatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak, baita haien egitekoak eta jardun-arloak finkatu ere); apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 18. artikulua arabera dagozkionak (Herri Administrazio eta Justizia Saila zenaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuena); eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan adierazitakoekin eta indarreko legediak esleitzen dizkion gainerako guztiekin bat.

Bestetik,..... toki-ordezkaria, toki-entitate horren ordezkari gisa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoa aplikatuta, eta toki-araubideari buruzko indarreko xedapenen testu bateginean (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua) eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean esleitutako eskumenak erabilita.

Bi alderdiek elkarri aitortzen diote administrazioarteko lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko gaitasun nahikoa dutela. Horretaz gain, Gobernu Kontseiluak 1996ko urtarrilaren 9an hartutako erabakian ezarritako baldintzak ere betetzen direnez (erabaki horretan dago zehaztuta zer-nolako hitzarmenak baimendu behar dituen Gobernu Kontseiluak), hau

ADIERAZTEN DUTE:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta..... toki-entitateak, besteak beste, betebeharrak hauek dituzte: herritarrei kalitateko zerbitzuak esleitzea, baliabide publikoak eraginkortasunez esleitzen eta erabiltzen saiatzea eta administrazio-izapideak sinplifikatzea. Horretaz gain, beste administrazio publiko batzuekin batera, helburu partekatuak lortzeko jarduten dutenean, parte-hartzearen, objektibotasunaren, gardentasunaren eta lankidetzaren printzipioak bete behar dituzte. Kasu zehatz honetan, EAEko Administrazioaren eta Tokiko Administrazioaren arteko elkarlana ezartzen da. Hala izan behar duela agintzen da lege hauetan: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea (1. eta 4. artikulua) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea (3. eta 140. artikulua). Horretarako, 140.2 artikulua ezartzen duenez, tokiko administrazioarekiko harremanak tokiko araubidearen oinarriko legeen bitartez arautuko dira, III. tituluan araututa ez dauden gaietan.

Helburu horiek lortzeko badira, ezinbestekoa da urriaren 1eko 40/2015 Legearen 144.1.e artikuluan zehazten den administrazio publikoaren arteko lankidetzaz sendotzea, lankidetzaz hitzarmenaren alderdi sinatzaileek beren gain hartzen dituzten baldintzak eta konpromisoak ere kontuan hartuta, lege beraren 144.2 artikulua arabera. Zehatz-mehatz, informazioa elkarri trukatzeko sistemak eraiki behar dira, administrazio-prozeduran dokumentuak edo datuak elkarri behar ez izateko, urriaren

1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea– ezarrita dagoenarekin bat etorrita.

2.– Horretarako, beharrezkoa da administrazio elektronikoaren garapenean azkar eta eraginkortasunez aurrera egitea, honako bi lege hauek benetan betetzeko: urriaren 1eko 40/2015 Legea (administrazio publikoen araubide juridikoari eta funtzionamenduari dagokienez) eta urriaren 1eko 39/2015 Legea (14. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio publiko guztiak behartuta daude harreman elektronikoak ezartzera edo ezartzen laguntzera). Hori dela eta, ezinbestekoa da administrazio guztien eskura jarritako zerbitzu elektroniko batzuk lehenbailehen edukitzea, legez ezarritako betebeharra benetan betetzea lortu ahal izateko.

Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, datuak eta dokumentuak ez emateko eskubidea baliatzen laguntzeko, Administrazioak gainerako administrazio publikoekin hitzarmenak egitea sustatuko du, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. artikuluan ezarritakoarekin bat. Erregelamendu horretako 68. artikuluan ezarrita dago hitzarmen horietan zenbait prozedura ezarriko direla, organo lagatzaileek ziurta dezaten ea aipatutako eskubidea erabili den, sarbide-eskaeren xede izan diren datu edo dokumentuei dagokienez.

Era berean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateek estatu- eta foru-administrazioekin izenpetutako hitzarmenen bidez formalizatutako zerbitzuetan eta geroago erabakitzen direnetan parte har dezaten, beharrezkoa da mekanismo egoki bat jartzea, aipatutako toki-entitateek aipatutako hitzarmenak erraz balia ditzaten, baina, edonola ere, zerbitzu bakoitzean erabiltzaileari ezarritako betebeharrak beti beteko direla bermatzen duen prozedura baten bidez.

3.– 2017ko martxoaren 24an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Estatuko Administrazio Orokorrak beste lankidetzahitzarmen bat sinatu dute, administrazio elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko, eta lankidetzahitzarmen horrek 2010eko urriaren 18ko hitzarmena ordeztuko du.

4.– Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141.1.c) artikulua xedatzen du gainerako administrazioei behar duten informazioa eman behar dietela beren eskumenak baliatuz egiten duten jarduerari buruz, edo herritarrek arloren bati buruzko informazio osoa eskuratu ahal izateko behar duten informazioa.

Ondorio horietarako, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 142.a) artikulua ezartzen duenaren arabera, hauek dira administrazio publikoen elkarlan-betebeharretik eratortzen diren betebeharrak: eskubidea jaso duen entitatea publikoak edo entitateak dituen informazio, datu, agiri edo frogabideak ematea, baldin eta administrazio eskatzaileak halakoak eduki behar baditu bere eskumenak baliatzeko; administrazio-informazioko sistema integratuak sortu eta mantentzea, lurralde nazional osoan administrazio-jardueraren esparru batzuei eta besteei buruzko datu eguneratu, oso eta iraunkorrak edukitzeko; laguntza-betebeharra beste administrazio batzuek beren eskumenak hobeto baliatzeko egindako eskariei arreta egiteko, bereziki administrazio horien jarduera beren lurralde-eremutik kanpo hedatzen bada.

Sinatzaileek datu jakin batzuk behar izaten dituzte beren egitekoak burutzeko eta esleituta dauzkaten eskumenak erabiltzeko. Beraz, administrazio publikoen arteko harremanetan elkarri laguntzeak nagusi izan behar duela kontuan hartuta eta beraien jardunean eta harremanetan baliabide publikoak eraginkortasunez esleitzeko eta erabiltzeko printzipioa eta herritarrei zerbitzu eraginkorra eman behar diren printzipioa aplikatuta, alderdiek uste dute beren arteko datu-trukea arautu behar dutela. Trukean baliabide informatikoak edo telematikoak erabiliko dira, eta, administrazio publikoek dauzkaten datuak direnez, herritarrei dagozkien bermeak eta eskubideak errespetatu beharko dira.

5.– Horregatik, bi alderdiek uste dute zerbitzuak linean ematea sustatu behar dela, zerbitzuen, izapideen, prozeduren eta informazioaren elkarreragingarritasuna handitzeko.

Horren harira, sinatzaileek, beren eskumenen eremuetan, beharrezkotzat jo dute Administrazioaren jabetzako sistemen eta aplikazioen arteko koordinazioa sustatzea. Sistemen eta aplikazioen berrerabilera ezin handiagoa izango da, administrazioen eta interes publikoaren premiak, hobe-kuntzak edo eguneratzeak gauzatzeko helburua ezarrita. Horretarako, sistemak eta aplikazioak alderdien eskura jarriko dira.

Erabiliko den elkarreragingarritasunerako sisteman, paperezko ziurtapenen edo ziurtagiriaren ordez, datuak trukatzeko plataformak edo horretarako prestatu diren beste sistema elektronikoko batzuk baliatuko dira. Hori horrela, administrazio publikoen sareak elkarrekin konektatuta egongo dira, bertako informatika-mekanismoak bateragarriak izango dira, eta administrazio publikoen sareetako transmisio telematikoa gauzatuko da. Horrelako komunikazio-sare batean informazio-sistemak elkarrekin konektatuta egongo dira, administrazioen arteko informazioa eta zerbitzuak trukatzeko aukera egongo da, eta interesdunek datuak erabili ahal izango dituzte (datuok erabilgarri badaude), beren eskumenen arloko izapideak, prozedurak eta jarduketak gauzatzeko. Horrek guztiak bat etorri behar du bere araudi arautzaileekin eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan –Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legea da, hain zuzen ere– eta lege hori garatzeko araudietan ezarritakoarekin; betiere segurtasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna ezin hobeto bermatuta. Alde horretatik, kontuan hartu behar da urriaren 1eko 40/2015 Legearen 158.1 artikuluan ezarritakoa; zehatz-mehatz, administrazio publikoek aplikazioen aurkibide eguneratuak edukiko dituztela, libreki berrerabiltzeko, Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionalen xedatuta dagoenaren arabera. Aurkibide horiek elkarreragingarriak izan beharko dute, Estatuaren Administrazio Orokorren aurkibide orokorrarekin bateragarritasun informatikoa eta konexioa bermatzeko.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarrita dago herritarrek eskubidea daukatela edozein administrazio egoniko dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, araudi arautzaile aplikagarriak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak edo interesdunak edozein administrazioari jada eman dizkion datuak edo dokumentuak ez emateko.

6.– Alderdiek elkarreragingarritasunerako sistema ezarri nahi dute; eta sistema horren bidez elkarri trukatuak dioten informazioa, sistemako euskarriak eta aplikazioak seguru, zainduta eta ondo araututa egongo dira. Administrazio publikoek horiek guztiak kontuan hartu beharko dituzte, erabaki teknologikoak hartzen dituztenean.

Helburu horiek eraginkortasun handiagoz lortzeko, eta administrazio publikoen arteko lankidetzaren eta koordinazio-printzipioei jarraituta, erabaki hau bereziki baliagarria da bi administrazio sinatzaileentzat.

Horregatik guztiatik, alderdiek administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmen hau sinatu dute.

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea eta helburua.

Hitzarmen honen xedea da baldintza eta irizpide orokorrak finkatzea: alde batetik, sinatzaileek ematen dituzten zerbitzu elektronikoen aprobetxamendu komuna egin dezaten; eta, bestetik, informazioa elkarri truka diezaioten.

Horren ondorioa da zerbitzu jakin batzuk erabilgarri egotea, eta alderdietako bakoitzak emandako zerbitzuetarako sarbidea eta haien erabilera komuna erraztea. Zerbitzu horiek hitzarmen honetan eta hitzarmeneko hiru eranskinetan adierazi bezala emango dira.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, datu hauek baino ez dira eskuragarri izango: gainerako administrazioek beren eskumeneko prozedurak eta jarduerak dagozkien arauen arabera izapidetzeko eta ebazteko interesdunei eskatzen dizkietenak, horien araudi arautzailean ezarritakoarekin bat etorrita.

Hauxe da hitzarmenaren xede nagusia: edozein administrazioak egin dituen dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, araudi arautzaile aplikagarriek eskatzen ez dituzten datuak edo dokumentuak edo lehendik beste administrazio bati eman zaizkionak ez emateko eskubidea egikaritzea, zeinaren onarpen-presuntzioa izango den, prozeduran kontraktasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako baldintzetan.

Hitzarmen honen xedea ere bada mekanismo bat ezartzea, III. eranskina beteta, toki-entitate sinatzailea erraz atxiki dakion administrazio elektronikoaren esparruko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzahitzarmenari. Hitzarmen horrek ordezkaturiko du 2010eko urriaren 18ko aurreko hitzarmena, Lehendakaritza Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artekoa, administrazio elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri ematekoa.

Azkenik, hitzarmenaren xedea ere bada hitzarmena indarrean dagoen bitartean sortzen diren administrazio elektronikoaren funtzionalitate eta zerbitzu berriak, haren xedearekin erlazioa dutenak, baliatzea alderdi sinatzaileek, etorkizunean horri eranskin berriak gehitzen dizkion prozeduraren bidez; nolana ere, prozedura horrek bermaturiko du bai haren edukiari bai zerbitzu bakoitzean erabiltzailearentzat ezarritako betebeharren betetze-mailari buruzko erabakiak egon badaudela.

Hitzarmena sinatuta, hau lortu nahi du: kudeaketa publikoa eraginkorragoa izatea, baliabide eta zerbitzu publikoak batera eta errazago erabiltzea, erabilera publikoko jarduerak egiten laguntzea, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeak betetzen laguntzea eta administrazio bikoiztasunak ezabatzea. Horretan, artikulua hauek bete beharko dira: urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.3 artikulua; Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen lehenengo artikuluan jasotako idazkeraren arabera; eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua.

Bigarrena.– Aplikazio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta toki-entitateak hitzarmen honetako bi eranskinetan zerrendatzen diren eta Eusko Jaurlaritzari dagozkion zerbitzuen funtzionalitateak baliatu ahal izango dituzte. Eranskinak honako hauek dira:

- I. eranskina. Datu-transferentzia.
- II. eranskina. Jakinarazpenen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzua.

Halaber, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko 2017ko martxoaren 24ko lankidetzahitzarmen berrian sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak baliatu ahal izango dituzte, hamaigarren klausulan eta III. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.– Informazio-trukearen arduradunak.

1.– Administrazio lagatzaile bakoitzak erabakiko du zer protokolo eta baldintza bete behar diren datuak trukatzeko eskaintzen diren zerbitzuetan sarbidea izateko. Datuak trukatzeko eskabideak koordinatu, izapidetu eta kontuan izateko organo arduraduna hau da:

- toki-entitatean: administrazio elektronikoaren eskumena duen organoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan: administrazio elektronikoaren eskumena duen zuzendaritza.

2.– Datuen lagapena hartzen duen administrazio bakoitzak datuetara sarbidea izateko baldintzak beteko ditu, eta baimendutako administrazio-izapide eta -prozeduren esparruan lagatzaileak emandako informazioa eskuratu nahi duten pertsonen eta organoen sarbidea kudeatuko du. Hau da datuak bitartekotza bidez trukatzeko eskabideak koordinatu, izapidetu eta kontuan izateko organo arduraduna:

- toki-entitatean: administrazio elektronikoaren eskumena duen organoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan: administrazio elektronikoaren eskumena duen zuzendaritza.

Laugarrena.– Baldintza teknikoak eta funtzionalak.

Datuen bitartekotza-protokoloen Elkarrengarritasun Arau Teknikoan jasotako baldintzak (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2012ko uztailaren 26koa) hitzarmen hau aplikatuz egiten den datuen truke bitartekotuari aplikatuko zaizkio.

Bosgarrena.– Hitzarmenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordea.

Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordea eratuko da, hitzarmen honetan eta eranskinetan alderdi sinatzaileek hartu dituzten konpromisoen kudeaketa, jarraipena eta kontrola egiteko. Honako kide hauek izango ditu: toki-entitateak izendatutako bi kide eta Eusko Jaurlaritzak izendatutako beste bi.

Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordeak ohiko bilkura bat izango du urtean. Horretaz gain, aparteko bilkura egingo du alderdietako batek eskatzen duen bakoitzean.

Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordeak ebatziko ditu hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sortutako arazoak, bai eta alderdi sinatzaileei hitzarmenaren edozein aldaketa proposatzea ere.

Horretan, kontuan hartu beharko da urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 c) letran ezarritakoa: sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak betetzen ez baditu, hitzarmena azkendu ahal izango da.

Gainera, jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordeak aldaketa teknikoak ezarri ahal izango ditu, betiere hitzarmenaren funtsa aldatzen ez badute.

Seigarrena.– Subjektu bakoitzak egin behar dituen jarduketak eta araubide ekonomikoa.

Lankidetzeta-hitzarmen honek ez du sortzen sinatzaileen arteko kontraprestazio ekonomikorik. Hala ere, alderdiek inbertsioak egin beharko dituzte beren instalazioetan, hitzarmen hau sinatutakoan, beren gain hartu dituzten betebeharrak eta, zehazki, alderdi sinatzaile bakoitzak egin behar dituenak betetzeko, baldin eta egingarriak badira.

Zazpigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea. Hala eta guztiz ere, sinatzaile guztiak ados jarrita, hitzarmena azkendu ahal izango dute.

Hitzarmenaren formalizazioa eta azkentzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,ko lurralde historikoko aldizkari ofizialean etako/go udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Zortzigarrena.– Hitzarmena aldatzea.

Alderdiek noiznahi proposatu ahal izango dute hitzarmena berrikustea egokitzat jotzen dituzten aldaketak egiteko. Hitzarmenaren edukia aldatu aurretik, alderdi sinatzaileek aho batez onartu beharko dute.

Klausulak berrikusten badira, alderdiek sinatutako eranskin batean jaso beharko dira aldaketok, eta eranskina hitzarmenari erantsiko zaio.

Halaber, eranskin-prozedura horren bidez, alderdiek adostu ahal izango dute hitzarmenak indarra duen bitartean sortzen diren eta haren xedearekin erlazioa duten administrazio elektronikoaren funtzionalitate eta zerbitzu berriei buruzko lehenengo klausulan ezarritako eranskinak gehitzea, baina horrek ez du ekarriko hitzarmen honen klausulak berrikustea.

Bederatzigarrena.– Araubide juridikoa.

Honako hauek dira hitzarmen honen manu arautzaileak: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53. artikulura bitartekoak; Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua, Tokiko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak tokiko zerbitzu publikoetan edo guztiontzako intereseko gaietan elkarrekin adosten duten lankidetzak ekonomiko, tekniko eta administratiboa arautzeko lankidetzak hitzarmenei dagokienez.

Hamargarrena.– Gatazkak konpontzea.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek konpromisoa hartu dute hura betetzean sortzen diren gorabeherak elkarrekin ados jarrita konpontzeko, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

Hitzarmenaren garapenean eta betearazpenean alderdien artean auziren bat sortzen bada, eta bosgarren klausulan aipatutako jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordeak konpondu ezin badu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoarekin bat etorrira.

Hamaikagarrena.– Komunikazioa.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmenaren beste sinatzailea ere aipatzeko, bakarka zein batera Hitzarmenaren gaiak egiten dituzten komunikazio-egintza guztietan.

Hamabigarrena.– Toki-entitatea atxikitzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Estatuaren Administrazio Orokorraren arteko 2017ko martxoaren 24ko hitzarmenari.

Klausula honen bidez, mekanismo bat ezartzen da hitzarmen hau sinatu duen toki-entitatea atxiki dakion administrazio elektronikoaren esparruko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzahitzarmenari, aplikagarriak diren alderdi guztietan, eta hitzarmen horren lehenengo klausulan (2) ezarritakoari jarraituta. Horretarako, toki-ordezkariek atxikitze-eskaeraren protokoloa sinatu beharko du eta, haren bidez, konpromisoa hartuko du soluzio teknologikoak eskuratzeko eta erabiltzeko betebeharrak betetzeko, hitzarmenean zehaztutakoaren arabera. Horretaz gain, bere gain hartuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko erabiltzaileei ezarritako betebeharrak ere, bere eskumenen arloan, III. eranskineko inprimakiarekin bat.

Hitzarmen hau Estatuko Administrazio Orokorri jakinaraziko zaio.

Azaldutako guztia frogatzeko, alderdiek hitzarmenaren bi (2) ale sinatu dituzte ondorio bakarretarako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio.

Izen-abizenak

Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta
Autogobernuko sailburua

.....ko/go Udaleko alkatea / ... toki-ordezkaria

HITZARMENARI ERANTSITAKO AKORDIOAK

I. eranskina: Datu-transferentzia.

II. eranskina: Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzua.

III. eranskina: Lankidetzahitzarmenari atxikitze protokoloa, administrazio elektronikoaren esparruko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko, estatuko administrazio orokorrekin 2017ko martxoaren 24an sinatua.

I. ERANSKINA, LANKIDETZA-HITZARMENARENA

DATU-TRANSFERENTZIA

1.– Xedea.

Eranskin honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta toki-entitateen artean datuak eskuratzeko eta transmititzeko baldintzak arautzea. Hortaz, bi alderdiak informazioaren lagatzaile moduan nahiz lagatzaile moduan aritu daitezke.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, datu hauek baino ez dira eskuragarri izango: gainerako administrazioek beren eskumeneko prozedurak eta jarduerak dagozkien arauen arabera izapidetzeko eta ebazteko interesdunei eskatzen dizkietenak, horien araudi arautzailean ezarritakoarekin bat etorrira.

Lagatzaileak bere egitekoen jardunean eskuratzen du informazioa, administrazioak direlako; lagapen-hartzaileak, berriz, eskatu behar du esleituta dauzkan eginkizunak betetzeko.

Nolanahi ere, informazioa indarreko arau-esparrua eta, bereziki, datu pertsonalen babesari buruzkoa errespetatuta eman eta eskuratuko da beti. Elkarri trukatuko dizkieten datu pertsonalak egoki eta beharrezkoak izateaz gain, ez dira gehiegizkoak izango, datu horiek zer esparrutan eta zer xedez lortu eta halakoei begira. Gainera, esparruek eta xedeek zehatzak, argiak eta legitimoak izan beharko dute, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko Legearen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, bai eta lege hori garatzeko arauekin ere bat etorrira. Gainera, datu horiek eskuratzeko baldintzak, protokoloak eta funtzionamenduari zein teknikari lotutako irizpideak ere zehaztu beharko dira, segurtasunari, osotasunari eta eskuragarritasunari buruzko bermeak ezin handiagoak izan daitezen.

Datu-transferentzia urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155.3 artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da –Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea–. Horretarako behar diren teknologia zehatzak erabiliko dira, administrazio publikoen informazio-sistemak elkarrekin konektatzeko komunikazio-sarea sortzeko, eta administrazioen arteko datuen eta zerbitzuen trukea gauzatzeko.

2.– Informazioa zertarako ematen den.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta toki-entitateen mende dauden organoek eta entitateek eskatzen dituzten dokumentuak eta datuak egiaztatzeko xedez emango da informazioa. Organo eta entitate horiek dokumentuok eta datuok eskatzen dituzte, beren eskumeneko prozedura administratiboak eta jarduketak izapidetzeko eta ebazteko, horien araudi arautzailean ezarritakoarekin bat etorrira, betiere prozedura horietan datu horiek emateko eskakizuna ezarrita badago, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

3.– Informazioaren edukia.

Datuen lagatzaile bakoitzak elkarreragingarritasun-zerbitzuen katalogoa osatu eta argitaratuko du, eta lagapen-hartzaile diren erakundeen eskura jarriko du, nahi dutena kontsulta dezaten. Zerbitzu-katalogo horretan, zehatz jasoko dira trukatuko diren datuak, zerbitzuetara sarbidea izateko baldintza teknikoak, izapidetze-baldintzak eta lagapen-hartzaileak jakin beharreko beste edozein informazio.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 38.5 artikulua ezartzen du egoitza elektronikoetan informazioak, zerbitzuak eta transakzioak argitaratzen direnean, irisgarritasun- eta erabilgarritasun-printzipioak bete beharko direla, horri buruz ezarritako arauekin bat etorrira; gainera, estandar irekiak erabili beharko dira, eta, hala balegokio, baita herritarren artean erabilera hedatua duten beste batzuk ere.

4.– Informazioa transmititzeko baldintzak.

Datuen bitartekotza-protokoloen Elkarreragingarritasun Arau Teknikoan jasotako baldintzak (2012ko uztailaren 26ko BOE) hitzarmen hau aplikatuz egiten den datuen truke bitartekotuari aplikatuko zaizkio, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 156.1 artikuluan ezarritakoari jarraituta.

5.– Datu pertsonalen babesa.

Alderdiek honako hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa; 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa, garatzeko erregelamendua onartzen duena; eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, hala nola hura garatzeko estatu- edo autonomia-mailako arautegia.

Datuen kontsulta egitean, datu horien jabeak, hots, pertsona interesdunak, baimena eman duelako presuntzioa baliatuko da, prozeduran kontrakotasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela. Horrek guztiak bat etorri behar du urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea– ezarritakoarekin.

Ematen diren datu pertsonalen arduradunak, informazioa laga baino lehen, fitxategi horiek behar bezala deklaratu eduki behar ditu, datuen babeserako kasuan kasuko agentzian. Tratamenduaz norbait arduratzen bada, aurreko arduradun horrek argibide egokiak emango dizkio datuetarako sarbidea eman dezan, hitzarmen honen xede diren zerbitzuak gauzatzeko.

6.– Informazioaren eskuragarritasuna.

Informazio-sistema asteko zazpi egunetako 24 orduetan egongo da erabilgarri.

7.– Konpromisoak: batetik, ez eskatzeko informazioa beste sistema batzuk erabiliz bidaltzeko; eta, bestetik, herritarrei ez eskatzeko informazioa banan-banan ekar dezaten.

1) Lagapena hartzen duen administrazioak ez dio eskatuko lagatzaileari informazioa hitzarmenean, eranskinetan edo alderdiek ituntzen dituzten aldaketetan adierazitakoak ez diren beste bitarteko batzuk erabiliz bidaltzeko.

2) Lagapen-hartzailea den administrazioak ez die eskatuko pertsona interesdunei lagatzaileak emandako ziurtagiriak edo bestelako agiriak aurkezteko. Aitzitik, informazio hori hitzarmen honetan ezarritako sistemaren bidez transmititzeko eskatuko dio lagatzaileari; non eta ez den ezinezkoa, arrazoi teknikoengatik edo antolamenduagatik, lagatzaileak informazio hori bidaltzea.

Azaldutako guztia frogatzeko, alderdiek hitzarmen honetako I. eranskinaren bi (2) ale sinatu dituzte ondorio bakarrerako.

_____(e)n, 2017ko _____aren ____(e)(a)n.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio,

Izen-abizenak

Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza
Publiko eta Autogobernuko sailburua.

.....ko/go Udaleko alkatea / ... toki-
ordezkaria

II. ERANSKINA, LANKIDETZA-HITZARMENARENA

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOEN ZERBITZUA

1.– Helburua.

Eranskin honen xedea da toki-entitateek jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren esparruko zerbitzua erabiltzeko dituzten eskubideak eta betebeharrak arautzea. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak garatu du zerbitzu hori.

Nolanahi ere, zerbitzua indarreko arau-esparrua eta, bereziki, datu pertsonalen babesari buruzkoa errespetatuta erabiliko da beti.

2.– Irismena.

a) Interesdunek erretilu birtual bakar batean jasoko dituzte jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak. Erretilu horrek aukera emango du itxura pertsonalizatzeko, toki-entitateek beren atarrietatik erabili ahal izateko.

b) Baimena ematen da toki-entitatearen mendeko organo edo entitateen edozein aplikazio informatikotan jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzua erabiltzeko.

c) Toki-entitateak herritarren eskura jartzen dituen prozedura guztietarako erabili ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzua, eta toki-entitateak arduratu beharko du zerbitzua bere aplikazio informatikoetan funtzionamenduan jartzeaz, eguneratzeaz eta mantentzeaz.

d) Bi alderdiek hitzematzen dute elkarri jakinaraziko diotela zerbitzuaren bateragarritasunari eragin diezaiokeen edozein informatizazio-neurri.

3.– Zerbitzu-emailearen betebeharrak.

Euskal Autonomia Erkidegoak, jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren esparruko zerbitzu-emailea den aldetik, bere gain hartzen ditu honako betebeharrak hauek:

a) Zerbitzuaren funtzionamendu ona zaintzea.

b) Proba-ingurune bat izatea, zerbitzuan hobeto integratzeko.

c) Behar diren mekanismoak prestatzea, zerbitzuen erabiltzaileak herritarrei informazio- eta arreta-laguntza eman diezaien; eta erakundeei, beharrezko euskarria.

4.– Zerbitzuen erabiltzailearen betebeharrak.

..... toki-entitateak, Euskal Autonomia Erkidegoko jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren esparruko zerbitzu-erabiltzailea den aldetik, bere gain hartzen ditu honako betebeharrak hauek:

a) Herritarrei ematea jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzua erabiltzeko behar diren bitartekoak.

b) Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak zein prozeduretan jaso ahal diren jakinaraztea eta jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak kanal elektronikoaren bidez jaso nahi direla adierazteko aukera ematea, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1 artikuluan ezarritakoaren arabera nahitaezkoa izan ezean.

c) Herritarrei informazioa eta arreta ematea eta jakinarazpen zein komunikazio elektronikoak bidaltzeko zerbitzuaren antolaketan laguntzea, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak –administrazio publikoekin baliabide elektronikoaren bidez harremanetan jartzeari buruzkoak– barne hartuta egon ezean.

5.– Ezaugarri teknikoak eta zerbitzu-maila.

Atal honetan zehazten diren ezaugarri teknikoak eta zerbitzu-maila izango dituzte eranskin honen xede diren zerbitzuek.

a) Zerbitzuaren erabilgarritasuna.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzua asteko egun guztietako ordu guztietan erabili ahal izango da.

b) Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzurako sarbidea

Bi modu daude jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzuan sartzeko:

– Alde batetik, bada interfaze bat, zerbitzua darabilen toki-entitateak behar bezala identifikatu eta baimendu dituen pertsoneri zuzenduta. Interneteko nabigatzaile baten bidez sar daiteke.

– Bestetik, bada web-zerbitzuko interfaze automatizatu bat, W3C The World Wide Web Consortium (W3C) deritzon une bakoitzean ezarritako erreferentziako estandarren arabera. Toki-entitateak behar bezala identifikatu eta baimendu dituen aplikazioak sartu ahal izango dira zerbitzuan.

EAEko Administrazio Publikoaren Euskal sarea sarearen bidez sartuko da jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzura.

c) Segurtasun-, konfidentzialtasun- eta auditoria-betebeharrak.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzuan interfaze grafikoaren edo zerbitzu-interfazearen bidez egiten diren eragiketa guztiak zifratu egingo dira.

Toki-entitatearen aplikazio erabiltzaileen eta jakinarazpen nahiz komunikazio elektronikoaren zerbitzuaren arteko komunikazio guztiak dena delako komunikazioaren osotasuna eta benetakotasuna bermatuta egingo dira.

Gainera, jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzuak sisteman egiten diren eragiketen beharrezko jarduera-arrastoak gordeko ditu.

d) Euskarria eta gorabeheren konponketa.

Zerbitzua erabiltzen duen toki-entitateak konpromisoa hartzen du zerbitzu batzuk martxan jartzeko, administrazio elektronikoaren zerbitzuen erabiltzaileei eta, bereziki, jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzuak erabiltzen dituzten toki-entitatearen zerbitzuen azken erabiltzaileei gorabeheretan laguntzeko. Toki-entitateak informazioa emango du bere administrazio-prozedura bereziki buruz, bai eta bere prozeduren esparruan egiten den jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzuaren erabilerari buruz ere.

Eusko Jaurlaritzak bigarren mailako laguntza-zerbitzu bat eskainiko dio toki-entitateari, jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzuaren erabileran sor daitezkeen arazoak konpontzeko. Zerbitzu hori kanal elektroniko eta telefonikoaren bidez emango da, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 18:00etara bitarte.

2017ko maiatzaren 10a, asteazkena

Hala ere, plataforma asteko egun guztietako ordu guztietan erabilgarri egotea bermatzeko, Eusko Jaurlaritzak gorabeheretan laguntzeko 24x7 zerbitzu bat prestatzeko konpromisoa hartzen du, jakinarazpen eta komunikazio elektronikoen zerbitzuaren funtzionamendu onari eragiten dioten arazoak konpontzeko.

Ziurtagiriak egiten dituzten ziurtapenerako zerbitzu-emaileek eskainiko dituzte ziurtagiri elektronikoen erabilerarekin zerikusia duten laguntza-zerbitzuak.

Azaldutako guztia frogatzeko, alderdiek hitzarmen honetako II. eranskinaren bi (2) ale sinatu dituzte ondorio bakarrerako.

_____ (e)n, 2017ko _____ aren __ (e)(a)n

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio,

Izen-abizenak

Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza
Publiko eta Autogobernuko sailburua.

.....ko/go Udaleko alkatea / ... toki-
ordezkaria

2017ko maiatzaren 10a, asteazkena

HITZARMENAREN III. ERANSKINA

PROTOKOLOA, ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO OINARRIZKO
 IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO XEDEZ ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN
 2017KO MARTXOAREN 24AN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENARI ATXIKITZEKO

_____ jaunak/andreak, _____ den aldetik,
 _____ toki-entitatea ordezkatuz, hau

ADIERAZTEN DU:

_____ toki-entitateko
 _____ organo eskudunak _____ e)ko
 _____ aren __ (e)an erabaki du eskatzea atxiki dakiola, baldintza hauetan eta aplikagarriak diren alderdi guztietan, administrazio elektronikoaren esparruko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzahitzarmenari, hitzarmen horren lehenengo klausulan (2) ezarritakoari jarraituta. Hitzarmena 2017ko _____ aren __ (e)ko EHAAan argitaratu zen.

_____ toki-entitateak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, hari atxikitzeari dagozkion alderdi guztietan; horretaz gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo eguneratu edo etorkizunean aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokionez. Horretaz gain, bere eskumenen arloan, hitzarmenean Euskal Autonomia Erkidegorako ezarritako betebeharrak ere bere gain hartzen ditu.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

ESKATZEN DU:

Ordezkatzen duen _____ toki-entitatea atxiki dakiola administrazio elektronikoaren esparruko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzahitzarmenari, lehenengo klausulan (2) aurreikusitakoaren arabera.

_____ (e)n, 2017ko _____ aren __ (e)(a)n.

SINADURA: __ TOKI-ORDEZKARIA

Eta, horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut,
 Vitoria-Gasteizen, 2017ko apirilaren 11n.